

Aretxagazeta

UDAL HAUTESKUNDEAK 1999

Aretxabaleta • 1999ko ekainak 14 • Ale berezia


EH gailendu da herrian

EAJ-EA koalizioari aurrea hartuz, Anjel Bergaretxe izango dugu berriz alkate

EH izan da udal hauteskunde hauetan gure herrian boto gehien jaso dituen alderdia. EAJ eta EAk bozketan hauek zerrenda bateratuak aurkeztu dituzten arren, bigarren indarra izan dira EH baino 84 boto gutxiagorekin.

Hirugarren indarrak, alderdi sozialistak hain zuzen ere, behera egin du. Orain lau urteko udal hauteskundeekin alderatuz, 158 boto galdu ditu eta gauza berbera gertatu zaio Ezker Batuari. Azken honek 35 hautesle gutxiago izan ditu.

Horrez gain, osoko bilkurak Alderdi Popularreko zinegotzi bat izango du, izan ere, lortutako 254 botoekin kontzejal bat baitagokio.




Udaletxetik jasota informazioa.

ARRITZEKO S.L.
PROMOZIOAK

ARGI-EDER Edifizioa

ARETXABALETAKO SANTA KURTZ KALEAN
27 ETXEBIZITZA, LOKAL ETA GARAJEAK



informazio gehiago
945 230408

1. SEKZIOA

Bedarreta
Elkano
Guridi
Iparragirre
Larrin plaza
Murubide
Otalora
Sta. Kurtz
Sarasate

auzoz auzo



Udaletxetik jasota informazioa.

2. SEKZIOA










Andra Mari
Basabe bidea
Errekabarren
Geltoki plaza
Herriko plaza
Lausitta
Mitarte

3. SEKZIOA

Araba ibilbidea
Aralar
Basabe polig.
Belorrieta
Bizkaia
Gipuzkoa plaza
Gorbea
Loramendi
Nafarroa
Zaraia

4. SEKZIOA

Bainuetxe
Markole auzoa
Solohaundi
Arkarazo
Etxebarri
Galartza
Korueta
Isurieta
Larriño
Oro
Azatza
Areatza

	1. SEKZIOA	2. SEKZIOA	3. SEKZIOA	4. SEKZIOA
 1995	527	584	395	142
 1999	376	473	355	181
 1995	208	305	292	138
 1999	335	478	412	219
 1995	208	174	169	32
 1999	160	115	129	21
 1995	48	72	57	3
 1999	44	46	40	15
 1999	85	102	60	7

Atxabaltarrok botoa ematea den eskubide honi ongi eusten diogula erakutsi genuen atzokoan ere. Botoemaleen %72,2 bozkatu zuen, % 27,8 abstenitu, beraz.

Osoko bilkura berriko hamairu zinegotziak honela banatuko dira: EHk sei zinegotzi izango ditu; EAJ-EA koalizioak bost; eta PSOEk eta PPK bana. Bilkura abertzalea izango dugu datoen lau urteetan.

Horrez guztiaz gain, eguna normaltasun osoz igaro zen, nahiz eta hutsune batzuk nabaritu ahal izan ziren batez ere, PP, PSOE eta EBko alderdieetako interbentoreei dagokionez, hauek ez baitziren agertu egun osoan zehar.

Bitxikerien artean, aipatu, "Falange Española"k boto bat jaso zuela eta beste bat "Centro Extremeño"ak. Horrez gain, Batzar Nagusietarako bozketan, Plaza Andreok taldeak hamar boto jaso ditu.

Hontza taldea izan zen atzokoan botua ematen lehenengotarikoa. Roa del Dueron bazkaria zutela eta autobusa ezin galdu. Hori dela eta, goizeko 8:45ean Kurtzebarri Eskolako atean zeuden guztiak prest bozkatzeko.



Bestalde, Victor Diaz Tejedor izan genuen azkenengotarikoa eskolara hurbildu eta botua ematen.

Mirian Manteca

MASAJISTA

Masaje terapeutikoa
posturen azterketa
eta egokitzapenean
diplomatua

Lasai

Lezama Merkatal Zentrua



Santa Kurtz, 24-behea

20550 Aretxabaleta


Tfnoa: 943 77 04 34

*Txanda
aurrez eskatu!*





Udal korporazioa



Anjel Bergaretxe
37 urte
Aretxabaletan



Sokorro Unanue
50 urte
Aretxabaletan




Xabier Etxebarrieta
34 urte
Aretxabaletan



Andoni Miguel
24 urte
Aretxabaletan



Josu Atxaga
22 urte
Aretxabaletan




Luis Errasti
47 urte
Aretxabaletan



Karmelo Azkoitia
53 urte
Aretxabaletan



Jose M^a Armentia
35 urte
Aretxabaletan




Jose A. Zubizarreta
54 urte
Aretxabaletan



Pablo Txinturreta
46 urte
Aretxabaletan



Iñaki Uribetxebarria
59 urte
Aretxabaletan



M^a Rosario Arrue
63 urte
Getxon



Iñaki Pierrugues
42 urte
Donostian

Multimedia sistemen bitartez

- Mekanografia
- Informatika (Word, Excel, Access, Power Point)
- Internet
- Microsoft project (gestión de proyectos)
- Autocad 14
- Programazio informatika (Pascal, Cobol, Delphi, Visual Basic)
- Windows NT
- Ekipo informatikoen erreparazioa
- Kontabilitate eta komertzial gestio mekanizatu
- Oinarrizko kontabilitatea
- Finantza gestioa I eta II
- koste kontabilitatea I eta II
- Gestio komertzial mekanizatu

Udako ikastaroak (uztaila 1999) 99/7/1-99/7/28

- Contaplus
- Facturaplus
- Nominaplus
- Giza errekurtsoen administrazioa
- Oinarrizko legislazio sozial eta laborala
- Lan kontratazioa
- Biderapen Administrazioa
- Segurtasun Sozialaren aurrean
- Nominak eta segurtasun soziala
- Mekanizazioa
- Zerga gestioa PYMESetan
- Sarrera
- Balio erantsiaren gaineko zerga (B.E.Z)
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zerga
- Beste zerga batzuk
- Sozietateei buruzko zerga (S. Z.).

*Abuztuaren
ere klaseak*


Eta gainera...

Informatika musikala (Midi sistema), ingeniarietza, enpresa zientziak, algebra, fisika I eta II, kalkulo I eta II, termodinamika, enpresa zientziak, estatistika, matematika, euskara, ingelesa,...

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA
ARABA ETORB. 3 -1.A
20500 ARRASATE
TEL.: 943 79 35 33
FAX.: 943 79 06 28
E-mail: bastida@tsai.es



Anjel Bergaretxe

Aretxabaletako alkate berria

Pozik emaitzarekin?

Bai, pozik nago batez ere bi arrazoigatik. Batetik, botu kopuruan igo egin dugulako eta bestetik, berriz ere Udalean lehenengo indarra garelako orain lau urte bezala. Hala ere, nahiz eta oraindik pentsatzeko asti handiegirik ez izan, arduraren

pisua gainera datorkidala ere ikusten dut.

Espero al zenuen irabazle ateratzea?

Esperantza bageneukan, baina ez nekien igoera horren handia izango zenik. Horrez gain, bat baino gehiagok, EAJ eta EAK zerrenda bateratuak aurkeztean botu pila bat eramango zituztela uste zuen eta ez da horrela gertatu. Baina berriz diot itxaropena bagenuela.

Zein da hemendik aurrerako erronka?

Lehenik eta behin alderdi barruko hainbat eztabaida egin behar ditugu. Honen ostean, gainontzeko alderdiekin ere bai, izan ere udalbatza berriaren egituraketarako urratsak jorratu bear ditugu.

Zein balorazio egingo zenuke

gainontzeko alderdiek izan dituzten emaitzen inguruan?



Orokorrean berantza egin dute guztiek orain lau urteko udal hauteskundeetan izan zituzten emaitzekin alderatuz gero. Horrez gain, dezepzio handiena EAJ-EA koalizioak hartu duela uste dut arestian aipatu bezala. Izan ere, biak elkarrekin aurkeztean boto kopuru handiena beraiek aterako zutela uste zuten eta ez da horrela izan. Horrez gain, orain lau urte ez bezala Alderdi Popularrak izango dugu gure artean.

Erraza izango al da PPrekin jardutea?

Frogatu beharra dago. Hala ere ez dakit udaletxera zenbatetan etorriko den, eta ez badator gainontzekook lan handiagoa izango dugu.

Batzar Nagusietarako emaitzei dagokionez, ez dute udal hauteskundeetako emaitzekin alderatuz ezberdintasun handiegirik. EH izan da boto gehien jaso dituen alderdia.

Bigarren indarra EAJ-EA izan da eta orain lau urteko datuak ikusiz gero, eta banakako kandidatura aurkezten zutela kontuan izanda jaitsiera nabarmena izan dute alderdi hauek. Horrez gain aipagarria da era beran, Alderdi Popularrak aurreko Batzar Nagusietarako bozetan baino ehun boto gehiago izan dituela.



Aholkularitza Zenbaki

Lana

Soldatak, Lan egutegiak, Zergen kitapena, GEROA kotizazioa, Gizarte Segurantzza, Kontratuen indargabetzea, Enplegu erregulazioak egiteko espedienteak, Enpresa hitzarmenak, Adiskidetze egintzak, Erreklamazioak FOGASA-ri, Kooperatibetako barne araudiak, Erretiro, elbarritasun edo alarguntasun planen eskaera.

Zergak

Pertsona fisikoen erretaren gaineko zergak, Balio erantsiaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zergak, Ondare eskualdatze eta dokumentaturiko ekintza juridikoen gaineko zergak, Ondorengotza eta emaitzen gaineko zergak, Zergen azterketa eta planifikazioa, Aholkuak, Kitapenak, Helegiteak.

Basabe industrialdea, C pab.

Aretxabaleta • 943 71 21 12 • Fax: 943 71 22 68

Merkataritza

Aholkularitza, eratzte eta era guztietako sozietateekin (S.A., S.L., S.A.L., S.L.L. Koop. Elk., S. Kolektiboa, S. Komandataria soila eta akzio bidez, S. Zibila, Ondare elkarte, A.I.E) lotutako eragiketak.

Kontularitza

Legezko erakundeak. Bakarkako enpresak (estimatzte zuzena, sarrera eta gastuen liburuak eta inbertsio hondasunak E.O. koefizienteetarako), Profesionalak, Ondasun erkidegoa.

Zibila. Denetarik

Gai zibilen inguruko aholkularitza: hiri alokatzea, jabego horizontala, familia, ondorengotzak. Zenbait gairen inguruko aholkularitza: jarduera gogaikarriak, zirkulazioa, salerosketak. Etxebizitza, negozio lekua, industria edo garaieak alokatzeko kontratuak. Denetariko kontratuak: salerosketa, trukea, mailegua, emaitza, zerbitzu prestazioa. Elkarteak eratzte eta aldatzea.

RENTA 4 S.A. BALORE ETA BURTSIA ELKARTEAREN ORDEZKARIAK INGURU HONETAN.

Eta edozein asegururi buruzko aholkua emateko, Gertu Correduría de Seguros SLren laguntza dugu.